


Txikizkako merkataritzaren sektoreko salmentek % 15,5eko beherakada izan dute Euskal AEn 2020ko bigarren hiruhilekoan

Elikagaien salmentek % 5,3ko igoera izan dute, eta gainerako produktuen salmentek, berriz, % 31,0ko beherakada

Euskal Autonomia Erkidegoko txikizkako merkataritzaren sektoreko salmentek % 15,5eko beherakada izan dute 2020ko bigarren hiruhilekoan, aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta, egutegi-efektuak atera ondoren eta prezio konstanteetan, Eustatek landutako datuen arabera. Sektoreko salmentek, erregai-zerbitzuguneak barnean hartu gabe eta termino beretan, % 13,7ko beherakada izan dute.

2020ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, eta dagozkion urtaro-efektuak kenduta, 2020ko bigarren hiruhilekoko salmenta-indizeak % 12,1eko beherakada izan du prezio konstanteetan.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizearen urte- arteko aldakuntza-tasa (%)



Iturria: Eustat. Txikizkako merkataritzaren indizea (BMIt)

Sektoreak kontuan hartuta, 2019ko aldi berarekin alderatuta eta prezioen eta egutegiaren efektua kendu ondoren, elikagaien salmentek % 5,3ko igoera izan dute; gainerako produktuen txikizkako merkataritzak, berriz, % 31,0ko beherakada izan du, eta automozioko erregaia salmentak % 34,1ekoa.

Elikaduraren txikizkako merkataritzaren barruan, elikaduran, edarrietan eta tabakoan espezializatutako merkataritzak (fruta-dendak, harategiak, arrandegiak eta abar)

% 6,6ko beherakada izan du, eta elikaduran, edarrietan eta tabakoan espezializatuta egon gabe ere produktu horiek nagusi diren txikizkako merkataritzak, berriz, % 11,3ko igoera (supermerkatuak eta hipermerkatuak nagusiki).

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hiruhile arteko aldakuntza-tasa. II/2020 (p)

	PREZIO FINKOAK		
	t / t-4	t / t-1	A (t) / A (t-4)
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	-15,5	-12,1	-9,6
Araba/Álava	-10,0	-9,6	-5,2
Bizkaia	-14,1	-9,5	-9,3
Gipuzkoa	-20,1	-17,1	-12,0
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Elikagaiak	5,3	2,0	4,4
Elikagaietan espezializatuta	-6,6	-2,6	-5,3
Ez espezializatuta, elikagaidunak bereziki	11,3	3,9	9,2
Beste produktuak	-31,0	-23,4	-20,2
Pertsonen hornikuntzan espezializatuta	-32,4	-27,7	-19,4
Etxearen hornikuntzan espezializatuta	-27,6	-17,0	-18,6
Beste kontsumo ondasun batzuetan espezializatuta	-32,6	-17,1	-23,2
Ez espezializatuta, gainerako produktudunak bereziki	-32,7	-16,1	-22,7
Automoziorako erregaia	-34,1	-29,6	-20,8
SALMENTEN INDIZEA zerbitzugunerik gabe	-13,7	-10,7	-8,6
ENPLEGU INDIZEA			
Euskal AE	-2,1	-2,0	-1,1

(p) behin-behineko datuak

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

At/A(t4) Lehen hiruhilekotik behatutako azkenekora arte metatutako aldiko urte arteko tasa (At) aurreko urtean metatutako aldi beraren aldean

Iturria: Eustat.Txikizkako merkataritzaren indizea (BMIt)

Gainerako produktuen txikizkako merkataritzan, prezio konstanteetan eta egutegi-efektuak zuzendu ondoren, salmenten beherakada orokorra izan da, 2019ko hiruhileko berarekin alderatuta. Adibidez, pertsonaren ekipamenduan espezializatutako merkataritzak (jantziak, oinetakoak, farmazia-produktuak eta abar) % 32,4ko beherakada izan du, eta etxeko ekipamenduan espezializatutakoak (etxetresna elektrikoak, altzariak, telekomunikazio-ekipamenduak eta abar), berriz, % 27,6koa. Beste kontsumo-ondasun batzuetan (liburuak, papergintza-gaiak, jostailuak, kirol-gaiak eta abar) espezializatutako txikizkako merkataritzak, bestalde, % 32,6ko beherakada izan du, eta gainerako produktuetan espezializatuta egon gabe ere produktu horiek nagusi diren txikizkako merkataritzak (txikizkako beste merkataritza bat, espezializatu gabeko establezimenduetan eta posta edo Internet bidezkoa), berriz, % 32,7ko beherakada izan du aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta.

Lurraldeak kontuan hartuta, salmenten indizeak urtetik urterako % 10,0ko beherakada izan du Araban. Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, beherakadak handiagoak izan dira (% 14,1 eta % 20,1, hurrenez hurren).

2020ko bigarren hiruhilekoan, Euskal Autonomia Erkidego osoko txikizkako merkataritzaren sektorean diharduten langileen kopuruak % 2,1eko beherakada izan du

aurreko urteko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta. 2020ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, berriz, beherakada % 2,0ra iritsi da.

Indize ekonomiko koiuntural honetan eta beste batzuetan kontuan hartutako langileen artean, aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente (ABEEE) bati lotutako pertsonak sartzen dira, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) [Methodology of Short Term Business Statistics](#) eskuliburuan langileei buruz jasotzen duen definizioari jarraikiz.

COVID-19AREN KRISIAK AZALERA HANDIETAKO ETA ELIKADURA-KATEETAKO INDIZEAN DUEN ERAGINARI BURUZKO OHARRA

Ekainaren 21ean, **COVID-19**ak eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan deklaraturako alarma-egoera amaitu zen. Bertan hartutako ezohiko neurriek zuzeneko eragina izan dute txikizkako merkataritzaren indizean parte hartzen duten establezimenduen jardueran.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie lagundu duten establezimendu guztiei, zirkunstantziak gorabehera egin duten ahaleginagatik. Haiei esker, bigarren hiruhilekoko indizea labinaren **% 89,12ko estaldurarekin** kalkulatu da (labinaren informazioa uztailean bildu da).

Egutegi-efektuen zuzenketan eta serieen urtarokotasuna kentzean erabilitako ereduak COVID-19ak aztertutako aldagaietan izan duen eragina jasotzen dute, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) [Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis](#) gida metodologikoan bildutako gomendioei jarraikiz.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62